

Sin./Fdo.: MONTSEERRAT PETRALANDA GORROTXATEGI - 2025-10-06
KULTUR EKINTZAKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE ACCIÓN CULTURAL

Sin./Fdo.: BEGOÑA DE IBARRA ZUAZO - 2025-10-09
KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE CULTURA

FORU AGINDUA, Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatuarena, BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBARI dirulaguntza zuzen eta salbuespenezkoa ematen diona Juan Manuel Lumbreras Arte Galeriak Estampa Madrid Nazioarteko Arte Azokan 2025ean, euskal artista gazteak edo Euskadin prestakuntza artistikoa duten artistak ordezkatzuz, parte hartzearen zati bat finantzatzeko.

ORDEN FORAL de la diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte por la que se concede a BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBA una subvención directa y excepcional para la financiación parcial de la participación de la Galería de Arte Juan Manuel Lumbreras en la Feria Internacional de Arte Estampa Madrid en 2025 representando a artistas jóvenes vascos y vascas o con formación artística en Euskadi.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailaren eskumenekoa da, besteak beste, Bizkaiko legatu historikoa eta kulturala ikertzea, zaintzea, zabaltea eta kudeatzea, baita legatu horren balio nagusiak gizarteratzeko eta transmititzeko programak garatzea ere. Horretarako, sail honek Bizkaiairen eta bere Foru Aldundiaren izen ona modu berezian zabaltzeko arte-adierazpenak antolatzen eta zabaltzen laguntzen du.

Entre las competencias del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia figuran investigar, conservar, difundir y gestionar el legado histórico-cultural de Bizkaia, así como desarrollar programas destinados a la socialización y a la transmisión de sus valores principales. A tal fin, este Departamento organiza y colabora en la difusión de diferentes manifestaciones artísticas que sirven para divulgar de una forma especial el buen nombre de Bizkaia y de su Diputación Foral.

Bestalde, BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBA Bilboko erdigunean dagoen Juan Manuel Lumbreras Arte Galeriararen titularra da. 1995ean sortu zen, eta Estatuko iparraldean hobekien kokatuta dagoen galerietako bat da. Erakusketetarako eta artelanak erosteko gunea izateaz gain, JOVEN LLAMA A JOVEN izeneko proiektu interesgarria egin du, aurten euskal artistak edo Euskadin prestakuntza dutenak Madrilgo ESTAMPA Arte Azokara hurbiltzen dituen.

Por su parte, BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBA es titular de la Galería de Arte Juan Manuel Lumbreras, situada en el centro de Bilbao y fundada en 1995 se trata de una de las galerías mejor posicionadas de la zona norte del Estado y además de ser un espacio expositivo y de adquisición de obras de arte, lleva a cabo un interesante proyecto llamado JOVEN LLAMA A JOVEN, que este año acerca a artistas vascos y vascas o con formación en Euskadi al Feria de Arte ESTAMPA en Madrid.

Azoka honen 33. edizioa egingo da aurten, urriaren 9tik 12ra bitartean, IFEMA Madrilen, eta arte garaikideko azoka da, Espainiako artearen merkatuan garrantzi handia duena. Helburu nagusia da Espainian arte-bildumazaletasun iraunkorra dinamizatzea eta indartzea, artistak beren tokietatik kanpo

Esta feria, que celebrará este año 2025 su 33 edición, entre los días 9 y 12 de octubre, en IFEMA Madrid, es una feria de arte contemporáneo consolidada y de gran relevancia en el mercado del arte español. Tiene como objetivo principal dinamizar y fortalecer un coleccionismo sostenible de arte en España,





ezagutaraztea eta bultzatzea, eta herrialdeko arte-galeriei eusten laguntzea.

dar a conocer e impulsar a los artistas fuera de sus ámbitos locales y apoyar el sostenimiento de las galerías de arte en el país.

Azokak Espainiako arte-eszenako galeria nagusiak biltzen ditu, proiektu finkatuak eta proposamen berriak barne, artisten, galeristen, bildumagileen eta publiko orokorraren arteko elkarrizketa eta trukea errazten duen espazio bat sortuz, arte garaikidearen merkatura bultzatzea bilatuz, haren zabalkundea eta estimazioa sustatuz.

La feria reúne a las principales galerías de la escena artística española, incluyendo proyectos consolidados y nuevas propuestas emergentes, creando un espacio que facilita el diálogo y el intercambio entre artistas, galeristas, coleccionistas y público general, buscando impulsar el mercado del arte contemporáneo, promoviendo su difusión y apreciación.

Testuinguru horretan, euskal arte-galeriek, onuradunak kudeatzen duenaren kasuan bezala, aukera baliotsua dute horrelako azoketan, hazten ari diren tokiko artistak ezagutarazteko edo bultzatzeko, dagoeneko finkatuta dauden beste batzuen laguntzarekin, nazio eta nazioarte mailako proiektzioa emateko.

En este contexto las galerías de arte vascas, como es el caso de la que gestiona la beneficiaria, tienen en este tipo de ferias, una valiosa oportunidad para dar a conocer o impulsar a artistas locales emergentes, apoyados por otros ya consolidados, para otorgarles una proyección nacional e internacional.

Kasu honetan, gehienetan Arte Ederren Fakultatetik eta EHUK eskaintzen dituen master artistikoetatik, BilbaoArtetik, Ertibilera aurkeztu diren artisteriez eta abarrez ari gara, eta artista hasiberriei laguntzeko GAZTEA LLAMA JOVEN izeneko proiektuan babesten dira.

En este caso, hablamos de artistas que, en la mayoría de las ocasiones, han pasado por la Facultad de Bellas Artes y los diversos másteres artísticos que ofrece la EHU, por BilbaoArte, que se han presentado a Ertibil, etc. y que se amparan en el proyecto de apoyo a los artistas noveles llamado JOVEN LLAMA JOVEN.

Beraz, esparru horretan kokatu behar da foruerakunde honek BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBARI Juan Manuel Lumbreras Arte Galeriak Estampa Madrid Nazioarteko Arte Azokan 2025ean, euskal artista gazteak edo Euskadin prestakuntza artistikoa duten artistak ordezkatzuz, parte hartzearen zati bat finantzatzeko. emango dion laguntza ekonomikoa.

En ese marco, por tanto, se sitúa el apoyo económico de esta institución foral a BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBA para la financiación parcial de la participación de la Galería de Arte Juan Manuel Lumbreras en la Feria Internacional de Arte Estampa Madrid en 2025 representando a artistas jóvenes vascos y vascas o con formación artística en Euskadi.

Diruz lagundutako proiektuaren gastuak, onuradunak aurkeztutako aurrekontuaren arabera, hamabost mila hirurehun eta berrogeita hamar (15.350,00) eurokoak dira.

Los gastos a que asciende el proyecto subvencionado, según el presupuesto presentado por la beneficiaria, son de quince mil trescientos cincuenta (15.350,00) euros.

BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBARI dirulaguntza zuzen hori ematea 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan xedatutakoaren barruan sartzen da, oso-osorik, proiektu bitxia eta apartekoa baita.

La concesión de la subvención directa a BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBA tiene perfecta cabida en lo dispuesto en el mencionado artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, ya que se trata de un proyecto caracterizado por su singularidad y excepcionalidad.





Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikulua arabera, salbuespen modura, interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoi egiaztatuengatik, edo behar bezala justifikaturiko beste arrazoi batzuegatik, deialdi publikoa egiteko eragozpenak daudeneko dirulaguntzak zuzenean emateko aukera egongo da.

El artículo 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, prevé la posibilidad de conceder de forma directa, con carácter excepcional, aquellas otras subvenciones en que se acrediten razones de interés público, social, y económico o humanitario u otras debidamente justificadas que dificulten su convocatoria pública.

2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikuluan ezarritako baldintza betetzeko —honelako diru-laguntzak ematea justifikatzen da artikulua horretan—, adierazi behar da zaila dela diru-laguntza hau deialdi arrunt batean sartzea, erakunde onuradunaren izaera berezia kontuan hartuta; izan ere, ESTAMPA Nazioarteko Arte Azokan parte hartzen duen bakarra da *Joven Llama Joven* programa egituratuarekin, berariaz euskal artista gazteen sustapenean oinarritua. Gainera, gaur egun ez dago azoka nazionaletan bitartekaritza artistikoko proiektu mota horiek barne hartzen dituen deialdi arruntik, eta horrek eragotzi egiten du ekimen hori ohiko bideetatik bideratzea. Horri gehitu behar zaio urrian egiten den ekitaldiaren behin-behinekotasuna, ebatzen arina eskatzen baitu, deialdi publiko bat izapidetzeko epeekin bat ez datorrena, eta beharrezkoa baita zuzeneko emakidaren modalitatea erabiltzea ferian benetan parte hartzen dela eta proiektuaren helburu kultural eta estrategikoak betetzen direla bermatzeko.

A efectos de dar cumplimiento a la exigencia del mencionado art. 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y que justifica esta vía subvencional, ha de señalarse la dificultad de incluir esta subvención en una convocatoria ordinaria, atendiendo a la particular naturaleza de la entidad beneficiaria, al ser la única que participa en la Feria Internacional de Arte ESTAMPA con un programa estructurado como *Joven Llama Joven*, centrado específicamente en la promoción de artistas jóvenes vascos. Además, no existe en la actualidad una convocatoria ordinaria que contemple este tipo de proyectos de intermediación artística en ferias nacionales, lo que impide canalizar esta iniciativa por las vías habituales. A ello se suma la temporalidad del evento, que se celebra en octubre, y que exige una resolución ágil que no se ajusta a los plazos de tramitación de una convocatoria pública, haciendo necesaria la utilización de la modalidad de concesión directa para garantizar la participación efectiva en la feria y el cumplimiento de los objetivos culturales y estratégicos del proyecto.

ESTAMPA Nazioarteko Arte Azokaren 33. edizioa egingo da aurten, urriaren 9tik 12ra, IFEMA Madrilén. Artearen merkatuan garrantzi handia duen arte garaikideko azoka da. Helburu nagusia artearen bildumazaletasun iraunkorra dinamizatzea eta indartzea da, artistak beren tokietatik kanpo ezagutaraztea eta bultzatzea, eta arte-galeriei eusten laguntzea.

La Feria Internacional de Arte ESTAMPA, que celebrará este año 2025 su 33 edición, entre los días 9 y 12 de octubre, en IFEMA Madrid, es una feria de arte contemporáneo consolidada y de gran relevancia en el mercado del arte. Tiene como objetivo principal dinamizar y fortalecer un coleccionismo sostenible de arte, dar a conocer e impulsar a los artistas fuera de sus ámbitos locales y apoyar el sostenimiento de las galerías de arte.

Azokak galeria nagusiak biltzen ditu, proiektu finkatuak eta proposamen berriak barne, artisten, galeristen, bildumagileen eta publiko orokorraren arteko elkarriketa eta trukea errazten duen espazio bat sortuz, arte garaikidearen merkatua

La feria reúne a las principales galerías, incluyendo proyectos consolidados y nuevas propuestas emergentes, creando un espacio que facilita el diálogo y el intercambio entre artistas, galeristas, coleccionistas y público





bultzatzea bilatuz, haren zabalkundea eta estimazioa sustatuz. Testuinguru horretan, euskal arte-galeriek aukera baliotsua dute mota horretako azoketan, hazten ari diren tokiko artistak ezagutarazteko eta bultzatzeko, dagoeneko finkatuta dauden beste batzuen laguntzarekin, nazio eta nazioarte mailako proiektzioa emateko.

general, buscando impulsar el mercado del arte contemporáneo, promoviendo su difusión y apreciación. En este contexto, las galerías de arte vascas tienen en este tipo de ferias una valiosa oportunidad para dar a conocer e impulsar a artistas locales emergentes, apoyados por otros ya consolidados, para otorgarles una proyección nacional e internacional.

Juan Manuel Lumbreras Arte Galeriak bederatzi denboraldi daramatza talentu gazteei artean bultzada eta ikusgarritasuna eman nahian, eta artearen merkatuan sartzeko plataforma bat eskaintzen die, bere ibilbidearen hasierako etapetan. Aldi berean, belaunaldi berrien artean bildumazaletasunarekiko interesa sustatzea, galerietara publiko berri bat erakarritz, hau da, trebatu nahi dena.

La Galería de Arte Juan Manuel Lumbreras lleva nueve temporadas tratando de impulsar y dar visibilidad a jóvenes talentos en el arte, ofreciéndoles una plataforma para introducirse en el mercado del arte, en las etapas iniciales de sus carreras. Al mismo tiempo de fomentar el interés por el coleccionismo entre las nuevas generaciones, atrayendo a las galerías a un público nuevo, a quien se trata de formar.

Proiektu hau definitzen duen izaera subjektibo berezi horri gehitu behar zaio ESTAMPA 2025 azokan parte hartzea aukera estrategikoa dela euskal artista gazteen proiektio nazional eta internazionalerako, bestela ezingo bailukete ikusgarritasun eta merkaturatze gune horietara sartu Juan Manuel Lumbreras bezalako galeria baten babesik gabe. Ekintza horrek zuzenean laguntzen du gure lurraldearen posizionamendu kulturalen, tokiko ehun galeristikoa sendotzen eta sortzen ari den talentua eta euskal kultura sustatzeko helburu estrategikoak betetzen.

A esta peculiar naturaleza subjetiva definitoria de este proyecto, que dota al mismo de una singularidad excepcional, ha de añadirse la circunstancia de que la participación en la Feria ESTAMPA 2025 supone una oportunidad estratégica para la proyección nacional e internacional de artistas jóvenes vascos, que de otro modo no podrían acceder a estos espacios de visibilidad y comercialización sin el respaldo de una galería como Juan Manuel Lumbreras. Esta acción contribuye directamente al posicionamiento cultural de nuestro Territorio, al fortalecimiento del tejido galerístico local y al cumplimiento de objetivos estratégicos de fomento del talento emergente y la cultura vasca.

Dirulaguntza honen helburua euskal artista gazteei ikusgarritasuna eta proiektzioa ematea da, sinergiak eta elkarlanerako eta networkingerako zubiak eskainiz; izan ere, azokak beste artista, galerista, komisario eta kritikoekin harremanak ezartzeko aukera zabaltzen du, eta horrek etorkizuneko lankidetzak eta arte-sare zabalagoetan integratzea ekar dezake. Era berean, artista gazteekin proposamen berritzaileak aurkezteak aukera ematen die euskal galeriei estatuko eta nazioarteko arte-panoraman eguneratuta eta lehiakor mantentzeko. Proposamen freskoak dituzten

La presente subvención persigue dar visibilidad y proyección a los artistas jóvenes vascos, ofreciéndoles sinergias y puentes de colaboración y networking, ya que la feria abre la oportunidad de establecer contactos con otros artistas, galeristas, comisarios y críticos, lo que puede derivar en colaboraciones futuras y en la integración en redes artísticas más amplias. Del mismo modo, presentar propuestas innovadoras con artistas jóvenes permite a las galerías vascas mantenerse actualizadas y competitivas en el panorama artístico nacional e internacional. Al apostar por





artista gazteen aldeko apustua egitean, galeriak bereiz daitezke, eta espazio dinamikoa eta abangoardia artistikoarekin konprometitutako ospea eraiki dezakete, bezero eta bildumagile berriak erakarrit.

artistas jóvenes con propuestas frescas, las galerías pueden diferenciarse y construir una reputación como espacios dinámicos y comprometidos con la vanguardia artística, atrayendo así a nuevos clientes y coleccionistas.

Era berean, euskal artista gazteak nazioko eta nazioarteko azoka garrantzitsuetan egoteak zuzenean laguntzen du lurraldea arte- eta kultura-sorkuntzaren gune gisa kokatzen. Dinamismoa eta eferbeszentzia kulturalaren irudia proiektatzen da. Sortzen ari den talentua erakustean, Euskal Herriatik kanpoko bildumagileen eta erakundearen arreta erakar daiteke, eta horrek etorkizunean euskal artean inbertsioak egitea eta tokiko eszenarekiko interes handiagoa sortzea ekar lezake.

Así mismo, la presencia de artistas jóvenes vascos en ferias de relevancia nacional e internacional contribuye directamente a posicionar al Territorio como un foco de creación artística y cultural. Se proyecta una imagen de dinamismo y efervescencia cultural. Al mostrar el talento emergente, se puede atraer la atención de coleccionistas e instituciones fuera del País Vasco, lo que podría traducirse en futuras inversiones en arte vasco y en un mayor interés por la escena local.

Beraz, dirulaguntza honek galeria babesteaz gain, sormen-ekonomian eragin positiboa duela ulertzen da, artistek arteari profesionalki ekitea eta lurraldeko kultura-aherastasunari laguntzea ahalbidetuz. Gainera, euskal artista gazteak nazioko eta nazioarteko ikusgarritasun-plataformetan sustatzea zuzenean bat dator kultura, talentua eta kanpo-proiektzioa sustatzeko helburu estrategikoekin.

Por consiguiente, se entiende que la presente subvención no solo apoya a la galería, sino que genera un impacto positivo en la economía creativa, permitiendo a los artistas dedicarse profesionalmente al arte y contribuyendo a la riqueza cultural del Territorio. Además, la promoción de artistas jóvenes vascos en plataformas de visibilidad nacional e internacional se alinea directamente con objetivos estratégicos de fomento de la cultura, el talento y la proyección exterior.

Horrek guztiak, begi-bistakoa denez, zailtzen du proiektua egokitzea Foru Sail honek sustatutako deialdietara.

Todo ello dificulta de modo evidente su encaje en las distintas convocatorias promovidas desde este Departamento Foral.

Azaldutako guztiagatik, eta halako ezaugarriak dituen proiektu baten garrantziaz jabetuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Sailak beharrezkotzat jotzen du proposatutako proiektua partez finantzatzeko dirulaguntza hau zuzenean ematea.

En base a todo lo expuesto, y siendo conscientes de la trascendencia que tiene poder contar con un proyecto de tales características, desde el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia, se considera necesaria la concesión de forma directa de esta subvención para la financiación parcial del proyecto propuesto.

Bestalde, aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Ildo

Por otra parte, y para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando ese campo. En esta línea, este





horretan, hitzarmen honek genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen ditu, bai berau prestatzeko orduan bai beronen aplikazioan, kontuan hartuta zer adierazten den 1/2023 Legegintzako Dekretuan, martxoaren 16koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategina onartzen duena, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

Bestalde, entitateak adierazten du ez dagoela sartuta foru dirulaguntzen onuradun izatea eragotzen duen ezein egoeratan (egoera horiek 5/2005 Foru Arauaren 12 artikuluan daude ezarrita), eta halaber adierazten du ez dagoela Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikulua arabera onuradun izateko ezarritako debekuetan.

Arlo horri dagokion aurrekontu-partidan (2008/0242 proiektuko 0405 G/334104/44300), badago behar besteko diru-izendapena zuzeneko dirulaguntza hau emateak dakarren gastuari aurre egiteko.

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 12.2 artikulua Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontuen Araudi Orokorra onartzen duen 169/2014 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriari dagokionez foru diputatuari emandako eskumenaren arabera ematen da diru-laguntza. Dekretu horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren organoek diru-laguntzak ematearen ondoriozko gastuak xedatzeko dituzten eskumenen mugak zehazten ditu.

Beraz, kontuan harturik zer eskumen ematen dizkidaten hala Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak nola Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren egitura organikoari buruzko araudia onetsi duen abenduaren 29ko 131/2020 Foru Dekretuak, eta haiek bat datozen gainerako xedapenek, honako hau

convenio incorpora la perspectiva de género y la perspectiva interseccional tanto en su elaboración como en su aplicación, tal y como se señala en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, y en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Por su parte, la entidad manifiesta no encontrarse incurso en ninguna de las causas que, a tenor del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005 le imposibilitaría adquirir la condición de beneficiaria de subvenciones forales, y declara que no se halla incurso en ninguna de las prohibiciones para ser beneficiaria recogidas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En la partida presupuestaria correspondiente, 0405 G/334104/44300, proyecto 2008/0242 existe la necesaria consignación económica para hacer frente al gasto que representa la concesión de la presente subvención directa.

La subvención se otorga en virtud de la competencia atribuida a la diputada foral por el artículo 12.2 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, en relación con la disposición adicional segunda del Decreto Foral 169/2014, por el que se aprueba el Reglamento General Presupuestario del Territorio Histórico de Bizkaia que determina los límites competenciales por razón de la cuantía de los órganos de la Diputación Foral de Bizkaia para la disposición de gastos derivados de la concesión de subvenciones y ayudas.

Por ello, y a tenor de las facultades conferidas en la Norma Foral 3/1987 de 13 de febrero sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, así como en el Decreto Foral 131/2020, de 29 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte, y demás disposiciones concordantes,





XEDATZEN DUT

LEHENENGOA.- Dirulaguntza zuzena ematea, HAMAR MILA (10.000,00) EUROkoa, BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBARI (IFZ 14260438R), Juan Manuel Lumbreras Arte Galeriak Estampa Madrid Nazioarteko Arte Azokan 2025ean, urriaren 9tik 12ra egingo da IFEMAn (Madril), euskal artista gazteak edo Euskadin prestakuntza artistikoa duten artistak ordezkatzuz, parte hartzearen zati bat finantzatzeko.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c) artikulua ezartzen duenaren babesean ematen da dirulaguntza hau, justifikatuta baitago deialdi publiko batean sartzeko zailtasuna, foru agindu honen azalpenezko atalean adierazten den moduan.

Dirulaguntza hori 2025eko ekitaldiaren aurrekontuko 0405 G/334104/44300 (2008/0242 proiektua) partidaren kargura ordainduko da.

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 16. artikulua onorioetarako, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arau hori garatzen duen dirulaguntzen erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak ezarritakoaren babesean, dirulaguntza beste edozein administrazio edo erakunderen (publikoa nahiz pribatua, nazionala, Europar Batasuneko nahiz nazioartekoa) helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderek inbentario bateragarria izango da, baina, hori gertatuz gero, dagokion onuradunak zuzenbidez onargarria den edozein bide erabiliz dirulaguntza publiko horren berri eman beharko lioke Kultur Ekintzako Zerbitzuari ahalik eta arinen.

Dirulaguntzen zenbatekoak, bera bakarrik edo beste dirulaguntza nahiz laguntza, sarrera edo baliabideekin batera (berezko finantzaketa

DISPONGO

PRIMERO.- Conceder una subvención directa de DIEZ MIL (10.000,00) EUROS a BEGOÑA TERESA LUMBRERAS DARRIBA (NIF 14260438R) para la financiación parcial de la participación de la Galería de Arte Juan Manuel Lumbreras en la Feria Internacional de Arte Estampa Madrid en 2025, que se celebrará entre los días 9 y 12 de octubre, en IFEMA (Madrid) representando a artistas jóvenes vascos y vascas o con formación artística en Euskadi.

Esta subvención se otorga al amparo de lo dispuesto en el artículo 20.2 c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, al quedar justificado, tal como queda recogido en la parte expositiva de esta orden foral la dificultad de su inclusión en una convocatoria pública.

Esta subvención se imputará a la partida 0405 G/334104/44300, proyecto 2008/0242, del presupuesto del ejercicio de 2025.

A los efectos del artículo 16 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, así como cuanto dispone el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, la presente subvención foral será compatible con otras u otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera otras Administraciones, entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, sin que ello obste la obligación de la respectiva beneficiaria de comunicar por cualquier medio probatorio aceptable en derecho tal subvención pública, de producirse, al Servicio de Acción Cultural a la mayor brevedad posible.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas,





barne), ezin izango du, inola ere, onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua gainditu.

ingresos o recursos, incluida la financiación propia, supere el coste de la actividad subvencionada.

Foru dekretu honetan jasotako diru-laguntza Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Araudian xedatutakoa bete beharko dute. Araudi hori 2023ko abenduaren 15eko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (2831. zenbakian), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa da. Honen ondorioz, araudi hori ez betetzeak erantzukizun penala, zibila eta administratiboa ekar diezaiolake arau-hausleari. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, emandako minimis laguntza, guztira, ez da 300.000 euro baino handiagoa izango hiru zerga-ekitalditan.

La subvención contemplada en el presente decreto foral está sujeta a lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis (publicación en el Diario Oficial de la Unión Europea DOUE 2831 el 15 de diciembre de 2023) y en consecuencia el incumplimiento de esta normativa, podría significar responsabilidad penal, civil y administrativa para la infractora. Según lo dispuesto por la Unión Europea, la ayuda total de minimis concedida no deberá exceder de 300.000 euros en un periodo de tres ejercicios fiscales.

BIGARRENA.- Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikulua ezartzen duen dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren kontzeptua betez emango dira dirulaguntza hauek. Ondorio horietarako, dirulaguntza jaso dezaketen gastuak izango dira batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta ezarritako epearen barruan egiten diren gastuak. Diruz lagundutako gastuen kostua ezin izango da inoiz izan merkatuko balioa baino handiagoa.

SEGUNDO.- La concesión de la presente subvención se realiza atendiendo al concepto de gastos subvencionables que establece el artículo 29 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. A estos efectos tienen la consideración de gastos subvencionables los que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido. En ningún caso el coste de adquisición de los bienes subvencionables podrá ser superior al valor de mercado.

Tributuak gastu diruz lagungarriak dira dirulaguntzaren onuradunak benetan ordaintzen dituztenean. Inoiz ere ez dira gastu diruz lagungarritzat hartuko zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsa badaitezke, ez eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

Los tributos son gasto subvencionable cuando la beneficiaria de la subvención los abona efectivamente. En ningún caso se consideran gastos subvencionables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

HIRUGARRENA.- Foru agindu hau jakinarazi eta hamar egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da eta Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzua izapideak egiten hasiko da Ogasun eta Finantzen Foru Sailarekin, dirulaguntza ordainketa bakar baten abonatzeko;

TERCERO.- Si en el plazo de diez días hábiles tras la notificación de esta orden foral la beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la subvención, se entenderá que queda aceptada, y el Servicio de Acción Cultural del Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte procederá a tramitar su abono en un solo pago ante el Departamento Foral de





horretarako, ez zaio ezein bermerik eskatuko onuradunari, zergatik eta ez delako arriskurik aurreikusten hartutako betebeharrak ez betetzeko.

Gastuaz baliatu, betebeharra aitortu eta dirulaguntza ordaindu aurretik, egiaztatu egingo da entitate onuraduna egunean dagoela zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzarekikoei dagokienez, eta dirua itzultzeko ebazpenen baten ondorioz zorduna ez dela.

Eginiko egiaztapenen ondorioz erakunde onuradunak aipaturiko betebeharrak ez dituela betetzen antzemanaz gero, hamar (10) eguneko epean egoera erregularizatzeko eskatuko zaio, eta, hori egin ezean, emandako dirulaguntzarako eskubidea galdu egingo duela adieraziko zaio administrazio-ebazpen baten bitartez.

LAUGARRENA.- Erabaki honen bidez emandako dirulaguntzaren onuradunak honako hauek betetzeko konpromisoa hartzen du:

a) Dirulaguntza honen xedea den proiektua egitea.

b) Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan (Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du foru arau horrek) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako dirulaguntzen erregelamenduaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera, onuradunak justifikazio-kontua aurkeztuta egingo du proiektuaren justifikazioa; justifikazio-kontu hori 2026ko martxoaren 31ra arte (egun hori barne) aurkeztu beharko du, eta informazio hau jaso beharko du:

1. Eginiko jarduerak justifikatzeko memoria.

2. Egindako jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa, honako alderdi hauek jasotzen dituen:

a) Eginiko jardueren egotzitako gastu eta sarreraren egoera-orria. Bete beharreko gastu eta diru-sarreraren egoerak 1. inprimakian proposatutako

Hacienda y Finanzas, no exigiéndose para ello garantía alguna a la beneficiaria, por cuanto no se aprecia riesgo de incumplimiento de las obligaciones asumidas.

Previo a la disposición del gasto, al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que la entidad beneficiaria se encuentra al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social y que no sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.

Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la beneficiaria incumple cualquiera de tales obligaciones, ésta será requerida para que en el plazo de diez (10) días regularice tal situación con la advertencia de que, en caso contrario, perdería el derecho a la subvención concedida, previa la correspondiente resolución administrativa.

CUARTO.- La beneficiaria de la subvención concedida por la presente orden foral se compromete a:

a) Realizar el proyecto objeto de la presente subvención.

b) Conforme a lo dispuesto en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el artículo 57 del Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, la justificación de las actividades realizadas por parte de la beneficiaria se realizará mediante la presentación, hasta el 31 de marzo de 2026 (incluido), de una cuenta justificativa que deberá contener la información que se indica a continuación:

1. Memoria justificativa de las actuaciones desarrolladas.

2. Una memoria económica justificativa del coste de las actividades desarrolladas que contendrá:

a) Estado de gastos e ingresos imputados a las actividades desarrolladas. El estado de gastos e ingresos a cumplimentar deberá responder a la





ereduaren egiturari jarraitu beharko dio.

estructura del modelo que se propone en el formulario 1.

b) Aurreko a) atalean adierazitako gastuen egoera osatzen duen kontzeptu bakoitzarentzat, diruz lagundutako proiektuaren gastuen zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta bertan adieraziko dira: hartzekodunaren identifikazioa, dokumentuaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta ordainketa-data, 2. a), b), c) eta d) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta. Justifikazioa egiteko epearen muga-egunean ordainduta dauden gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

b) Para cada uno de los conceptos que componen el estado de gastos señalado en el apartado a) anterior, se elaborará una relación clasificada de los gastos del proyecto subvencionado, con identificación del acreedor, número de documento, importe y fecha de emisión y pago, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 2. a), b), c) y d). Solo se tendrán en cuenta gastos efectivamente abonados a la fecha de fin del plazo de justificación.

c) Diru-sarreraren egoera osatzen duen partida bakoitzarentzat, aurreko a) atalean adierazitako diru-sarreraren (dirulaguntzak nahiz bestelako diru-sarrerak) zerrenda sailkatu bat sortuko da, eta, bertan, zenbatekoa eta jatorria adieraziko dira, 3. a) eta b) inprimakietan proposatutako agiriaren egiturari jarraituta.

c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del documento que se propone en los formularios 3. a) y b).

d) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitortpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari bakar-bakarrik egotzi ahal zaizkiola c) letran berariaz adierazitako sarrerak.

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren b) letran adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.

e) Indicación, de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) Fakturak eta ordainketen euskarri diren dokumentuak aurkeztea.

f) Aportación de las facturas y de los documentos que soporten los pagos.

g) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

g) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

BOSGARRENA.- Nolanahi ere, foru dirulaguntza honen onuradunak derrigorrez bete beharko du Bizkaiko Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen lege araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoa.

QUINTO.- En todo caso, la beneficiaria de la presente subvención foral queda obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Era berean, dirulaguntza publiko hau jasoz gero, erakunde onuradunak aipaturiko foru arauaren 33. artikuluan eta harekin bat datozenetan

En idéntico sentido, la concesión de la presente subvención pública conlleva que la entidad beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los





ezarritakoa bete beharko du.

artículos 33 y concordantes de la mencionada norma foral.

